



Sindicato Médico de Euskadi | Euskadiko Sendagileen Sindikatua

# PRENTSA OHARRA

## SME ez da joango biharko Mahai Sektorialera

**Kategoria guztiak ez dira ordezkaturata izango, Osakidetzaren negoziazio-borondatea hutsaren hurrengoa da, eta karrera profesionala emakida gisa berraktibatzeke iragarpena, argitaratzea adostuta zegoenean, maniobra burugabea izan da**

**Bilbon, 2022ko otsailaren 23an.** -- Euskadiko Sendagileen Sindikatua ez da joango bihar, 2022ko otsailaren 24an, Mahai Sektorialera. Hautaketa eta Hornidura Zuzendariordeak (eta ez Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzak, dagokion bezala) egindako deiaren ondoren, Medikuen Sindikatuak honako hau adierazi nahi du

1. Gure ustez, negoziatorako mahai sektorial bat baliozkoa izan dadin, mahaia osatzen duten eragile sozialek kategoria guztiak ordezkatu behar dituzte. SMEk sendagileen kolektiboa ordezkutzen du, eta, beraz, ez du zentzurik gaur egungo egoeran bertara joateak
2. Sindikatu arteko Plataformako ezein kide Sendagileen Sindikatuarekin harremanetan jarri ez den arren, bat gatoz Osakidetzaren negoziatio-borondatea hutsaren hurrengoa delako ideiarekin, bai Mahai Sektorialaren barruan, bai kanpoan.
3. Azkenik, adierazi nahi dugu Osakidetzaren estrategia, karrera profesionalaren berraktibatzea langileei emandako kontzesio gisa iragartzea, hura argitaratzea eta 21/12/31n abian jartzea adostuta zegoenean, maniobra hutsala iruditu zaigula, eta, beraz, bere profesionalakiko errespetu eta begirune falta erakutsi duela.

### Informazio gehiago:

Cristina Leciñana

688 74 81 33 | [comunicación@sme.eus](mailto:comunicación@sme.eus)